



OTOITZAK

Arnauld François Maitie

Iturria: *Les prières du prone en basque (dialecte souletin)*,
Arnauld-François Maytie. Lamagnère, 1874.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MaitieOtoitzak.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

LES PRIÈRES DU PRONE

en basque (dialecte souletin)

publiées par

M^{gr} Arnauld-François Maytie

Evêque d'Oloron, en 1676

Réimprimé chez M^{me} Veuve Lamaignère
en 1874



Le petit livret que nous reproduisons est probablement le premier ouvrage qui ait été imprimé en dialecte basque souletin. Il a été publié en 1676 par M^{er} Arnauld-François de Maytie, évêque d'Oloron, le troisième de la noble famille de Maytie, de Mauleon, qui ait occupé ce siège. Il est à présumer qu'il l'aura écrit lui-même dans sa langue maternelle.

On ne connaît de cet opuscule qu'un seul exemplaire, lequel est en notre possession. Nous l'avons fait reproduire dans sa justification et page pour page, ligne pour ligne, sans rien changer ni à l'orthographe, ni à la ponctuation.

Cet écrit et le catéchisme de Bela-Peyre, qui fut imprimé quelques années plus tard (en 1695), sont un témoignage du peu de variation, ou plutôt de l'absence de variation dans le dialecte souletin depuis deux cents ans.

Urrugne, le 26 Mars 1874
ANTOINE D'ABBADIE,
Membre de l'Institut

PRONVS

*Singulis diebus Dominicis clarè et distinctè
immediatè post Euangelium populo legendus*

Aitaren, eta Seniaren, eta Espiritü Saintiaren izenian Hala biz.

Popülü Kristia, egünko bestak manü egiten derizie mündüko lanak eitzirik, Jinkoaren zerbütatzera: Hartakoz lekü saindü hontara bildü zireie, eginbide honen errendatzera, Kristi fidelak bezala.

Zoinen lehena baita, fediak eta elizak erakasten derizkien gaizen aithortzia, hori eginbehar düzie sinheste oso bateki, egiati dela, zeren Jinkoak zoin baita lehen egia Elizari erakatsi baiterio, eta Elizak espiritü saintiaz ürgatzirik, hutsik ezin baitaidi haren partez erraiten deritzienetan, eta zeren Apostolien sinhestiak, guria hitz güititan baitadüka, dügün erran.

Credo in Deum Patrem omnipotentem Creatorem Caeli & Terrae.
Et in Iesum Christum Filium eius vnicum Dominum nostrum.
Qui conceptus est de Spiritu Sancto, Natus ex Maria Virgine.
Passus sub Pontio Pilato, Crucifixus, mortuus, & sepultus.
Descendit ad inferos; tertia die resurrexit à mortuis.
Ascendit ad Caelos, sedet ad Dexteram Dei Patris omnipotentis.
Inde venturus est iudicare vivos et mortuos.
Credo in Spiritum Sanctum.
Sanctam Ecclesiam Catholicam, Sanctorum Communionem.
Remissionem peccatorum
Carnis resurrectionem.
Vitam aeternam. Amen.

Sinhesten düt Jinko Aita potere oro dianian, Zeliaren eta lürraren Kreazalian.

Eta Iesü Krist haren seme bakoitz gure Iaunian.

Zoin izan baita konzebitü Espiritü Saintiaz, sorthü Maria Birjina ganik.

Soferitü Ponzio Pilatüsen pian, Krüfikatü, hil, eta ehortzi.

Iaitsi ifernietara, heren egünian hiletarik piztü.

Zelietrat igan, iarririk dago Jinko Aita potere oro dianaren alde eskünian.

Hantik ginen da bizien eta hilen iuiatzera.

Sinhesten düt Espiritü Saintian.

Eliza Santa Katholika, saintien parteliant izatia.



Bekatién parkamentia.

Aragiaren piztia.

Bethi irainen dian bizitzia. Hala biz.

Bigerrenian, zien bekatiez dolü üken behar düzie, zeren Jinkoaren hotarüzünari eta ezitarüzünari ogen egiten baiterie; boronthate oso batekin haren graziareki batian, ez gehiago erortera, eta ahalik sarriena kofesatzera, oroz parkamentü eskatzeko, erranen düzie.

Confiteor Deo Omnipotenti, Beatae Mariae semper Virgini, beato Michaeli Archangelo, beato Ioanni Baptiste, Sanctis Apostolis Petro & Paulo, omnibus sanctis, & tibi Pater, quia pecaui nimis cogitatione, verbo & opere; Mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa; Ideo precor beatam Mariam semper Virginem, beatum Michaellem Archangelum, beatum Ioannem Baptistam, Sanctos Apostolos Petrum, & Paulum, omnes Sanctos, & te Pater orare pro me ad Dominum Deum nostrum. Amen..

Kofesatzen niz Jinko potere oro dianari. Maria bethi Birjina dohatsiari, Iondane Ñeli Arkanjeliari, Iondane Iohane Baptistari, Apostolü saintier Iondane Petiri, eta Iondane Pauleri, beste saindü orori, eta zuri Aita Espiritüala, zeren sobera bekatü egin baitüt pensamentüz, hitzez, eta obraz: Ene faltaz, ene faltaz, ene falta hadiz. Hortakotz othoitzen düit Maria bethi Birjina dohatsia, iondane Ñeli Arkanjelia, iondane Iohane Baptista, Apostolü saintiak iondane Petiri, eta iondane Paule, beste saintiak oro, eta zü Aita espiritüala, Jinkoa othoi dekazien enegatik.

Misereatur vestri omnipotens Deus, & dimissis peccatis vestris perducatur vos ad vitam aeternam. Amen.

Indulgentiam, absolutionem & remissionem peccatorum vestrorum tribuat vobis omnipotens, & misericors Dominus, Amen.

Hirurgerranian, Jinkoa ohoratü behar düzie bihotz amoratsü bateki, eta ezagütü haren handitarüzina; laidatzen düzielarik bere potere handi, zühürtze, hontarüzün, eta beste müga gabe dütian perfekzione gatik, oferitzen deriozielarik mezako Sakrifizio Saintia Apezareki elizaren gogoan, zien espiritien eta korpitzen ohoreskiak, zien honak eta zerbütü leialak.

Laurgerrenian, ohoreskü bera, eta eskerrak emanen deritzozie, zeren kreatü baitüzitie merexi gabe, begiratü ogen egiten deriozielarik, berrizi erosi Iesü Kristen odolaren balioaz bekatarien eta deebriaren manü petik,

deithü ebanjelioaren ezagützuala, elizan ezari, Sakramentü, grazia, eta bere aberatstarüzün espiritüaletan parte eman.

Bostgerrenian, Jinkoa maithatü behar düzie gaiza oren gaineti, eta zien Kristi lagüna, zoin baita haren üdüria; zihäreien büria bezala; ez hanbat honki egin deritzelakoz hüts, eta paradüsia adelatü, bena orano, zeren berartan baitü hontarüzün güzia, eta zien azken ürhenze gehiena baita; Karitate honen eginbidiak edireiten dira haren, eta elizaren manietan, ditzagün erran.

Jinkoaren maniak dira hamar

1. Jinko bakoitz bat adora eta maitha ezak gaiza oren gaineti.
2. Jinkoaren izena iura eztezala, ez beste gaizarik behar gabe.
3. Igantiak begira itzak, Jinkoa zerbütatzen diala debotki.
4. Bita eta ama ohora itzak, lürrian bizi adin lüzazki.
5. Gizon erhaile ezizala, obraz, ez boronthatez.
6. Lüzürüs ezizala gogoz, ez korpitez.
7. Besteren hona ebats eztezala, ez dakialarik edüki.
8. Iakile falsü ezizala, ez iagoiti gezürti.
9. Aragizko obra onhets eztezala, ezkonzez baizi.
10. Besteren honik nahi ezziala, edükiteko gaistoki.

Elizaren maniak dira zazpi

1. Igantez meza enzün ezak, eta besta manatiez debotki.
2. Hire bekatia oro kofesa itzak, urthian behin gütienä.
3. Ore Kreazalia errezebi ezak berantena bazkoz ümilki.
4. Elizaz manatü bestak begira itzak leialki.
5. Laür tenporak, bijiliak, eta gorozüma barur itzak osoki.
6. Ostiralian, ez neskenegünian eztezala ian aragirik.
7. Tenpora debetatiez eztagiala ezteik, eta detxema primiziak paka itzak xüxenki.

Seigerrenian, zeren beraren grazia gabe, haren boronthate saintia zihäreiek ezin egin baitirozie, ez eta hartakoz beragana hel; ezagüt eza-zie hontarüzün oren üthürbüria bezala, eta sinheste handi bat hartürük haren potere oso, liberalitate, eta miserikordian, Iesü Kristen merexietan, Birjina Sakratiaren, eta paradüsüko Saintü oren arartekotarüzünian, othoi ezazie bizitze honen eta Elizaren behar orogatik, hanbat zihäreiegatik, nola bizi eta hil orogatik.



Othoi ezazie Eliza Santa Katolika, Apostolika eta Romanoaren begira, eta goratzia gatik; gure Aita Saintia gatik, zoin baita haren bürü ageri dena; Kardinalen Kolejio Sakratia gatik, gure Iaun. N, Apezküpia gatik, haren Kargüdünegatik, gure Iaun Arxapezküpü, Apezküpü, Erretor eta beste arimen, gidazale oro gatik, gure Errege ezinago Kristia gatik, lekü hontako Patron, Patrone gatik; Iuje eta beste oro atik; Amorekati haien Gobernü hanbat espiritüal, nola tenporalen pian, Eliza egiten dien partiak oro, güziz erresüma hontan, bake honian bizi direlarik, saintiago gertha ditian; bekatorer dolü dakien; Eri, eta penatan direnak, berheziki lekü hotakoak, soltha ditian, edo Jinkoaren amorekati, ditien bihotztoiki egar; Eliza honi honkigiliak, Jinkoak paka ditzan; Elizati herratiak, eta berhezikiak berartara bil ditian; fede gabiak honiala ützü; eta Jinkoaren zerbütükü korpitzen osagarria, airiaren xahütarzüna, eta lürreko honak begiratü diren gure othoitz ororen gozoa, Iesü Krist gure Iaunak erakatsi derikünian, dagoelakoz, erranen dügü.

Pater noster qui es in caelis, sanctificetur nomen tuum. Adueniat regnum tuum. Fiat voluntas tua sicut in caelo, & in terra. Panem nostrum quotidianum da nobis hodie. Et dimitte nobis debita nostra, sicut & nos dimittimus debitoribus nostris. Et ne nos inducas in tentationem. Sed libera nos à malo. Amen.

Gure Aita zelietan zirena, erabil bedi saintüki zure izena, zure erresüma jin bekigü, zure boronthatia egin bedi zelian bezala lürrian. Igüzü egün gure egüneko ogia. Eta parka itzagützü gure bekatiak, hala nola gük parkatzen baitütügu guri ogen egiler; Eta ezgitzatzula eitz tentationetan erortera. Bena begira gitzazü gaitzetik, hala biz.

**Eta zeren behar baitügü üken debozione
eta sinheste handi bat Birjinaren sokorrian,
erranen dügü:**

Ave Maria gratia ple

na, Dominus tecum

: benedicta tu in mulieribus, & benedictus fructus ventris tui Iesus, Sancta Maria mater Dei, ora pro nobis peccatoribus nunc & in hora mortis nostra, Amen.

Salütätzen zütüt Maria graziaz bethia, Iauna da zureki, benedikatü zira emazte ororen artian, eta benedikatü da zure sabeleko frütia Iesüs.

Maria saintia Jinkoaren ama othoitz egüzü gü bekatore gatik orai, eta gure hilzeko orenian, hala biz.

Hebenko ere arima honkigilen arhinmentia gatik, eta beste pürgatorioan daudiane gatik, güziz aste hontan, noren meza saintiak Eliza hontan erranen baitira, hentko dügün erran

Fidelium Deus omnium conditor & redemptor animabus Famulorum, Famularumque tuarum remissionem cunctorum tribue peccatorum; vt Indulgentiam quam semper optauerunt, pijs supplicationibus consequantur, qui viuis & regnas in saecula saeculorum. R. Amen.

V. Requiem aeternam dona eis Domine.

R. Et lux, perpetua luceat eis.

V. Requiescant in pace.

R. Amen.

**Azkenekoz, gure Iaun Apezküpiaren poterez
eskümükatü berhezi dira**

1. Majzien belhagile, enkantazale, azti, estekazale, eta hetara hersatzen direnak, dakielarik deebriareki pakto egiten diela, edo iakinez geroz, bekatü handi bat dela.
2. Eliza gizonen zonbat nahi arhinzki xaflazaliak.
3. Bere Aita, edo Amen popazaliak.
4. Seroreki aragizko bekatiaren egiliak.
5. Elizan, edo hilherrian heretiko, edo eskümükatü izentatü baten korpitzen ehortzaliak.
6. Neskato, edo emazten bortxazaliak.
7. Ezkonze ixil egiliak, bere lagüneki.
8. Haurren urthia beno lehen bereki eratzaliak, ithotzen badira.
9. Elizak, eliza gizonen, edo haiek nahi dütien arrandatek bere honak goza eztitzen gibelzaliak, eta haien züzenen gordazaliak bortxaz, mehatxuz edo nola nahi.
10. Haur sorthü berri bere manü pekoak, zortzi egünetan barnen batheia eraziten ezütienak.



Haec vltima excommunicatio non reservatur.

His addet, si quae sint monenda iuxta Rituale.

De gallico haec cantabrica elucubratio caeteris quae passim legentur emendatior, condita est cum altero inferiori Prono, pro Patria Solensi, iussu illustrissimi & Reuerendissimi Domini Episcopi Oloronensis. Datum Mauleone die nostrae sinodi quinta Maij.,

Anno Domini millesimo sexcentesimo septuagesimo sexto.

ARNALDVS FRANCISCVS DE MAYTIE

Episcopus Oloronensis

PRONVS

*Pariter legendus singulis diebus feria secunda,
Obitus, Nonis, et Anniuersarijs,
quibus populus in Ecclesiam conuenire assuevit,
quoties non habebitur concia.*

Aitaren, eta Semiaren, eta Espiritü Sainiaren izenian. Hala biz.

Arima debotak bildü zireie lekü saintü hontara,

Eliza ama saintiaren egitate honaren araura

Lehenik, Jinkoaren adoratzera, eta egin deritzien hontarzün eta grazia orotzaz eskerren emaitera, zien bekatiez parkamentü eskatzera, eta arimen salbatzeko behar dütüzien gaizen hari ümilki galtatzera, ararteko ezarten deriozielarik Birjina ama saintia, zien Aingürü begirazale, Patron Saintü, eta beste saintiak oro.

Bigerrenian, hona bildü zireie, pürgatorioko penetan diren arimen ürgaztera, *Generaliter diebus lunae*, eta berheziki N. zenaren arimaren, zoi-netako egün erraiten baitira meza saintiak eliza hontan, eta ohereskiak egi-ten, eretxeki ditzakogun oro bere bekatien satisfakzionetan, othoitzen dügularik gure Jinkoa, plazer dian pena orotarik idokirik, paradüsüko gloria saintian ezarri; hartakoz erranen düzie Trinitate saintiaren ohoretan hiruretan *Pater, Abe Maria* eta *Requiem*, berhala Iesü Krist gure salbazalieren bost zauri karioen ohoretan, bostetan *Pater*, eta *Abe Maria*. Eta arima hura ezpada beharetan; hontarzün hoiek oro ditzogün Jinkoari eskent haren askazi, edo beste arima beharretan direne gatik.

Eta zeren, Pürgatorioko penetan diren arimek sokorritü izan behar baitie meza saintiez orotan gainti, gero othoitze, barur, amoina, ohoeskü, eta beste obra honez, gomendatzen deriziet karitate hoietzaz ahalik hobekiena ürgatz ditzatzien, sinhesten düzielarik, eta esperanxa hartzen bere

penetarik solthatütik, Jinkoaren gloria gozatüren dienian izanen direla ordari zien othoitze egile; eta Jinkoak hobeki enzün zitzen, adela ziteie zien arimen haren grazian ezartera, bekatü orotzaz parkamentü ümilki galthatzen deriozielarik, eta osoki hitz emaiten etzireiela gehago bekatiala erorin; igaranez dolümen haur erakats izozie.

Ene Jinko hona, parkamentü eske nauzü ümilki ene bekatü orotzaz, dolü eta bihotz min dizüt zure amorekatik, zeren oro hon zirelarik, ogen egin baiterizüt; hartzen dizüt boronthate oso bat zure graziareki batian, ez gehiago bekatürik egiteko; berhala hitz emaiten derizüt ene bekatü orotzaz kofesatüren nizala ahalik sarriena, emanen zaitadan penitziaren egiteko. Halabiz.